



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/25

Euskera eta Kulturako Batzordeak aho batez onetsi dau aztarnategi paleolitikoak daukiezan bederatzi kobazuloren babesa bultzatzea

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura Batzordeak, Talde Mistoak sustatutako Arauz Besteko bederatzi Proposamen onetsi ditu gaur goizean aho batez. Proposamen horreen bitartez, aztarnategi paleolitikoak daukiezan kobazuloetarako babes araubide berezia ezarteko aukera emongo daben beste horrenbeste kalifikazino espediente edegitea eskatzen jako Eusko Jaurlaritzari. Zehatzago esanez, ekimenak kobazulo honeetan dauka eragina: Antzoriz, Armintxe eta Lumentxa Lekeition; Goikolau eta Atxurra Berriatuan; Santimamiñe eta Morgota Kortezubin; Askondo, Mañarian; eta Ondaro Nabarnizen.

Onetsi diran bederatzi proposamenek ia euki berbera daukien eta batera eztabaidatu eta onetsi diran arren, Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak, aztarnategi bakoetak eta horreen inguruneak daukiezan berezitasunak dirala eta justifikau dau bakarka aurkeztea. Kultur ondasun horreek “ezagutzeko, kontserbetako eta babesteko” helburuaz gain, Aldecoak azpimarratu dau oso garrantzitsua dala Bizkaiko kobazuloetan dagozan aztarnategi guztiak, 2008an Unesco Kultur Ondare Unibersal izendatu eban Bizkaiko Golkoko itsasertzeko labarretako artearen katalogoan sartzea.

Talde Popularraren aldetik, Eduardo Andrés bozeroalea bere aldeko botoa iragartera mugatu da, Isabel Cadavalek Euskal Sozialistak taldearen izenean egin dauen moduan. Podemos Bizkaia taldeko Josean Elgezabal be ekimenaren alde agertu da, baina orain arte zergaitik ez dan babes neurririk hartu itaundu dau, eta adierazo dau holango neurriek premina berezia daukiela kasu batzuetan, Lekeition dagon Armintxeko kobazuloan gertatzen dan moduan. EH Bildu taldetik, David Lopategik Talde Mistoaren proposamenaren alde dagola esan dau, “ondo argumentautu” dagolako, baina harrituta agertu da, orain arte ez dalako holango neurririk ezarri. Jane Eyre Urquieta Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak esan dauenez, “oso egokia” da bederatzi aztarnategi horreetatik bakoetarako babes adierazpen indibidualizauaren adierazpena onestea.

Aldeko 15 botogaz eta abstentzino eta kontrako boto barik, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Eusko Jaurlaritzari Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean oinarritutako kalifikazino espedientea eregi daiala eskatzea erabagi dabe, holan, kultur ondasun izaerea dala eta, bederatzi kobazuloen arteko bakoetarentzat babes araubide espezifikoa ezarri eta definidu ahal izateko.

Foru Diputatuaren agerraldia

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura Batzordeak gaur goizean egin dauen saioa, Lorea Bilbao Euskera eta Kultura Diputatuaren agerraldiagaz osatu da, berak eskatuta, orain hiru urte bere Sailak, lurralde historikoan erriberako arotzeriaren tradizioa berreskuratzeke, kontserbetako eta ezagutuazoteko martxan jarri eban ERAIN proiektua aurkezteke.

Lorea Bilbaok azaldu dauenez, proiektuak lanerako bost ildo jasoten ditu (itsasontziak berreskuratzeko tailerra eta ikerketa, artxibatze, hedapen eta dinamizazio jarduerak), eta ataza zehatzak azpimarratu ditu, jatorrizko planoak berreskuratu ostean *Portu* ontzi auxiliarra eregi izana, edo hiru itsasontzi zaharbarritu izana, horreen artean Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoaren bildumaren barruan dagon hegaluzeak harrapetako *Nuevo Anchústegui* itsasontzia. Foru Diputatuak adierazo dauenez, arrantzontzi horregaz egiten ari dan beharra “erronka itzela” da, baina, esan dauenez, “bide onetik doa”, lau fasetan programata dagon prozesuan: itsasontziaren estruktura berreskuratzea, pieza bakoitzaren diagnostikoa eta inbentarioa, kontserbazinorako esku-hartzea, eta etorkizunean bisitagarria izateko berreskuratzea.

Batzarretako taldeen esku-hartzeko txandetan Arturo Aldecoak (Talde Mistoa), erriberako arotzeriari eusteko deia egin dau, epe luzerako enplegu iturri moduan, eta antzeko ekimenak hartu-emonen eukitea ona izango litzatekela iradoki dau, Pasaiaiko Albaola faktoriagaz (bertan *San Juan* baleontzia berreregiteko beharretan ari dira) edo, XVIII. gizaldiko *Hermione* fragatea eregi eban Rochefort alkarreagaz (Frantzia).

Eduardo Andrés (Talde Popularra) Foru Diputatuak emondako azalpenak eskertzeraz mugatu da, eta Josean Elgezabalen (Podemos Bizkaia) eretziz, Erain “itsasoko ondarea berreskuratzeko pausua” da. Horrez gain, *Nuevo Anchústegui* berreskuratzearen aldeko plataformak aurrera eroan dituan ekimenak goraiatu ditu. Josu Montalbán (Euskal Sozialistak) pozik agertu da, programa modu egokian doalako aurrera.

María Jesús Padrones (EH Bildu) pozik azaldu da, Erain proiektuaren aldeko apustua egiten ari dalako, baina arrantzontziak bizi izan eban egoera kritikoa gogoratuaz dau, eta bere taldeak eta *Nuevo Anchústegui* itsasontziaren egoera kritikoa salatzen 2013an sortu zan alkarreagaz egindako beharra azpimarratu dau. José Ángel Basaurik (Euzko Abertzaleak), bere aldetik, Saila zoriondu dau, egindako behararengaitik, “erriberako arotzeria mota hori desagertzeko bidean egoalako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/03/19

La Comisión de Euskera y Cultura acuerda por unanimidad promover la protección de nueve cuevas con yacimientos paleolíticos

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana por unanimidad un total de nueve Proposiciones No de Norma, promovidas por el Grupo Mixto, por las que se solicita al Gobierno Vasco la apertura de otros tantos expedientes para establecer regímenes de protección específicos para cuevas en las que existen yacimientos paleolíticos. En concreto, la iniciativa afecta a las grutas de Antzoziz, Armintxe y Lumentxa en Lekeitio; Goikolau y Atxurra en Berriatua; Santimamiñe y Morgota en Kortezubi; Askondo, en Mañaria; y Ondaro en Nabarniz.

Aunque las nueve proposiciones aprobadas tienen prácticamente el mismo contenido, y se han debatido y aprobado conjuntamente, el representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha justificado su presentación individualizada por las especificidades que presenta cada uno de los yacimientos y su entorno. Además del objetivo de “conocer, conservar y proteger” estos bienes culturales, Aldecoa ha subrayado la importancia de que todos los yacimientos en cuevas de Bizkaia sean incluidos en el catálogo del arte rupestre de la cornisa cantábrica, declarado Patrimonio Cultural Universal por la Unesco en el año 2008.

Por parte del Grupo Popular, su portavoz Eduardo Andrés se ha limitado a anunciar su voto a favor, al igual que lo ha hecho Isabel Cadaval en nombre de Socialistas Vascos. Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia, también ha apoyado la iniciativa, si bien se ha preguntado por qué no se habían tomado medidas de protección hasta la fecha, y ha advertido que éstas son especialmente urgentes en algunos casos, como el de la cueva lekeitiarra de Armintxe. Desde EH Bildu, David Lopategi ha justificado su apoyo a la propuesta del Grupo Mixto por encontrarla “bien argumentada”, aunque también ha mostrado su extrañeza por que este tipo de medidas no se hayan presentado antes. La portavoz de Nacionalistas Vascos, Jane Eyre Urquieta, ha calificado de “muy adecuado” que se apruebe una declaración de protección individualizada en cada uno de los nueve yacimientos.

Con 15 votos a favor y ninguna abstención ni votos en contra, las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado finalmente solicitar al Gobierno Vasco la apertura de un expediente de calificación, en base a la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco, que permita establecer y definir por su carácter de bien cultural un régimen de protección específico para cada una de las nueve cuevas.

Comparecencia de la Diputada Foral

La sesión celebrada esta mañana por la Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia se ha completado con una comparecencia a petición propia de la Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, para la presentación del proyecto Erain, puesto en marcha por su Departamento hace tres años con el objetivo de recuperar, mantener y dar a conocer la tradición de la carpintería de ribera en el territorio histórico.

Lorea Bilbao ha explicado que el proyecto incluye cinco líneas de trabajo (taller de recuperación de barcos, así como actividades de investigación, archivo, difusión y dinamización), y ha destacado tareas concretas como la construcción del bote auxiliar *Portu* a partir de la recuperación de sus planos originales, o la restauración de tres embarcaciones, entre ellas el bonitero *Nuevo Anchústegui* de la colección del Museo Ría de Bilbao. La Diputada Foral ha calificado de “reto impresionante” el trabajo en este pesquero, aunque ha asegurado que “va por buen camino” una tarea programada en cuatro fases: recuperación estructural del barco, diagnóstico e inventario de cada una de sus piezas, intervención para su conservación, y recuperación para que sea visitable en el futuro.

En los turnos de intervención de los grupos junteros, Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha animado a mantener la carpintería de ribera como fuente de empleo a largo plazo, y ha sugerido la conveniencia de mantener contacto con iniciativas similares como Albaola en Pasaia (donde se reconstruye el ballenero *San Juan*), o con la asociación de Rochefort (Francia) que construyó el *Hermione*, una fragata del siglo XVIII.

Eduardo Andrés (Grupo Popular) se ha limitado a agradecer las explicaciones ofrecidas por la Diputada Foral, y Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha considerado que Erain representa “un paso para recuperar el patrimonio marítimo”, al tiempo que ha alabado las iniciativas de la plataforma que abogó por recuperar el *Nuevo Anchústegui*. Josu Montalbán (Socialistas Vascos) se ha congratulado de que el programa se esté desarrollando adecuadamente.

María Jesús Padrones (EH Bildu) ha mostrado su satisfacción por el hecho de que se esté apostando por un proyecto como Erain, pero ha recordado la situación crítica que vivió el pesquero, y ha puesto en valor la labor realizada por su grupo y por la asociación creada en 2013 para denunciar la crítica situación del *Nuevo Anchústegui*. Por su parte, José Ángel Basauri (Nacionalistas Vascos) ha felicitado al Departamento por el trabajo realizado porque “este tipo de carpintería de ribera estaba en vías de extinción”.